

HEMEROTEKA DIGITALA

Argitalpen zaharrak irakurtzeko wegunea egin dute

1830etik 1937 urtera kaleratutako 33 argitalpenen sarean jarri dituzte eta euskarazko testu batzuk daude

Xabier Etxabe

Udal Liburutegiak duen hemeroteka fondo zabala digitalizatzen ari dira, eta orain arte digitalizatutako 33 argitalpen eskuragarri daude dagoeneko Interneten. 1830-1937 bitartean argitaratu ziren hainbat testu kontsulta daitezke www.liburutegidigitala.donostiakultura.com web orrian.

Hemeroteka bildumetan izaten diren argitalpenak maiz ikertzaileentzat direla pentsa daiteke. Udal Liburutegiak abian jarri duen webgune berri honekin herritar guztiek dute Donostiako historiaren informazio iturri hau eskuragarri. Digitalizatzeko prozesua 2003. urtean hasi zuten eta lan horren emaitzak ikus daitezke orain web orrian. Guztira, 33 argitalpenetako 127.343 orrialde digitalizatu dituzte. Horietatik, 28 argitalpen, gainera, Donostiakoak dira.

Donostian kaleratu eta euskaraz idazten ziren argitalpenak ere baziren urte haietan eta horiek web orrian irakur daitezke. Correo de Gipuzcoak hainbat testu euskaraz ditu, La Galernak ere euskarazko olerkiak tartekatzen ditu eta El Thun Thun izeneko argitalpenak ere euskarazko testuak dituela esan du Arantza Urkia, Udal Liburutegiko zuzendariak.

Donostiako historia herritarren esku uzteaz gain, bestelako helburuak ditu proiektu honek. Besteak beste, ondare bibliografikoa babestea, orokorrean, originalak zaindu eta manipulazioa murriztea, teknologia berrien baliabideak aprobetxatzea, eta interes komunak dituzten antzeko erakundeekin lankidetzan sustatzea, azaldu du Ramon Etxezarreta kultura ordezkariak. Argitalpenak digitalizatzen eta web orrian kaleratzen jarraituko du Udal Liburutegiak. Besteak beste, Etxezarretak jakitera eman duenez, La Constancia egunkariaren 1904-1936 arteko aleak digitalizatuko dituzte, El Correo del Norte (1912-1916) eta mikrofilmetan dauden La Voz de Guipuzcoa, El Pueblo Vasco eta El Cuartel Real argitalpenetako hainbat ale ere.

Udal Liburutegiak, halaber, hemeroteka bilduma aberasteko Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegiarekin lankidetzan aritu nahi du. Koldo Mitxelena Liburutegian argitalpenak digitalizatzen hasi dira, XX. mendeko argitalpenak batik bat, adierazi du Urkiak. Webgunean sartzten denak beste liburutegi batzuetako hemerotekekin lotura egiteko aukera ere badu.